



IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENA

Bitarteko funtzionarioak (Ordezkoak)

.- Sarrera

Ikasturte-hasierako esleipen-prozesuan, bitarteko irakasleek parte hartu baino lehen, arautegian jasotako beste talde guztiek parte hartu behar dute. Une horretan bitarteko irakasleei eskainiko zaizkien lanpostuak, berriz, libre egongo dira, lanpostu hutsak direlako edo lanpostuen titularrak ordezkatu behar direlako.

.- Arautegia

Orokorrean, ordezkoen zerrendak osatzen dituzten lagunek aukeratu ahal izango dituzte lanpostuok, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2004ko maiatzaren 26ko Ebazpenean finkatutako irizpideen arabera. Izan ere, ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda kudeatzeko irizpideak onartu ziren. Bestetik, ebazpen hori aldatzen duten beste ebazpen guztiak ere kontuan hartu beharko dira.

Nolanahi ere, Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2007ko ekainaren 19ko ebazpenetan (edo urtero ordezkatuko dituztenetan) jasotako aurreikuspenak aplikatu beharko dira. Izan ere, Haur/Lehen Hezkuntza/DBH leko eta Bigarren Hezkuntzako ikasturte-hasierako esleipen-prozesuei buruzkoak dira, eta prozesu hori garatzeko arau-esparrua ezartzen dute.

.- Ikastetxean finkatzea

Bitarteko irakasleak ere ikastetxean finkatzeko formula aplikatuko da 2008/2009 ikasturtetik aurrera. Horrela, irakasleok ikasturte-hasierako esleipen-prozesuan parte hartuko dute, gainerako taldeek egiten duten modu beretsuan.

Beraz, neurri hori jarri da irakasleek ikastetxeetan jarraitzeko eta ikastetxeetako lantaldeak egonkortzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta erakunde sindikalek behin eta berriro azaldu baitute hori lortzeko sistema bat bideratzeko gogoia.

Figura hori arautzeko, aurreikuspen hauetatik abiatu gara:

.finkatzeko eskubidea

Urtero, hainbat laguni onartuko zaie eskubide hori. Pertsona horien kopurua aurreko ikasturtearen hasierako esleipen-prozesuan bitarteko irakasleei zuzendutako lanpostu-kopuruaren %50 izango da.

Kopuru hori zehazteko, talde hauek hartuko dira kontuan:

- .Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak.
- .Bigarren Hezkuntzako irakasleak
- .Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
- .Musika-kontserbatorioetako tresnen espezialitateak
- .Arte-eskoletako espezialitate praktikoak

.finkatzeko eskubidea duten lagunak zehaztea

Ordezko gaien zerrendan ezarritako ordenaren arabera zehaztuko da nork duen finkatzeko eskubide hori. Horretarako, ez dira kontuan hartuko, nahiz eta zerrendetan egon, egun euskal sistema publikoan irakasle gisa lanean ari ez direnak.

Horrez gain, beharrezkoa izango da zerbitzuak eten gabe eman izana ikastetxe berean eta gutxienez ere otsailaren lehenengo lanegunean hasi eta ikasturtearen amaierara arte (ekainaren 30a arte). Hortaz, ikastetxe hori euren "erreferentziako ikastetxea" izango da.

Norbera prozesuan parte hartzen duen taldearen barruan baliatu ahal izango da eskubide horretaz.

.ikastetxean finkatzeko prozesua

Hala zehaztutako pertsonak lehentasuna izango dute euren erreferentziako ikastetxeko lanpostu bat betetzeko, beti ere eskubide handiago duen beste pertsona batek lekuz aldatzera behartzen ez baditu.

Ikastetxe berean aldi berean pertsona batek baino gehiagok eskubide hori balu, erreferentziako ikastetxe horretan duten antzintasunaren arabera ordenatuko dira. Antzintasun bera izanez gero, berriz, ordezko gaien zerrendan duten puntuaziora joko da eta, azkenik, zerrenda horretan duten hurrenkera erlatibora.

Hona pertsona guztiak finkatzeko modua:

.lehenengo eta behin, aurreko ikasturtean bete zuten lanpostuan.

.lanpostu hori ez balego edo lanpostua lehentasun gehiago duten taldeetakoren batek edo eskubide handiago duen beste bitarteko irakasle batek bete badu, orduan ikastetxean libre dagoen beste lanposturen batean finkatuko dira irakasleak, baldin eta lanpostu hori pertsona parte hartzen duen kidegokoa eta zerrendan agertzen den espezialitate batekoa bada eta pertsonak lanpostua betetzeko baldintza guztiak betetzen baditu.

Finkatzeko, 1. kidesuna soilik hartuko da kontuan.

Horretarako, lanaldi osoko lanpostuak baino ez dira erabiliko, nahiz eta aurretik lanpostuok beteko dituzten lagunek lanaldi murriztua jardun izana. Dena den, lanpostua eskuratu eta gero lanaldia murriztea eskatu ahal izango dute, horretarako eskubidea badute.

. ezin finkatzea / uko egitea

Ikastetxean finkatu ezin diren lagunek hautatze-fasera joan beharko dute. Bertan, geratzen diren lanpostuetako bat aukeratu ahal izango dute, talde bereko gainerako lagunekin batera eta ordezkogaien zerrendan duten hurrenkeraren arabera.

Finkatzeari uko egiteko, norberaren borondatez ikastetxez aldatzeko baldintza orokorrak eta epeak, ikasturte-hasierako esleipenari buruzko ebazpenek ezarritakoak, bete beharko dira. Uko egitea onartuz gero, erreferentziako ikastetxea galduko da, eta interesatuak hautaketa-fasean parte hartu beharko du, aurreko paragrafoan adierazten denez.

.egoera bereziak

Etete iragankorreko egoera kontuan hartuko da finkatzeko eskubidea onartzeko orduan.

.sistema aldatzea

Hurrengo ikasturteei begira, dagokion batzordean aztertuko da adierazitako portzentaje hori goratu edo jaitsi egin behar den. Horretarako, lortutako emaitzak eta sistemaren premiak aztertuko dira.

.- 2007/2008 ikasturteko aurreesleipena

2007/2008ko ikasturte-hasierako esleipen-prozesuan lortutako lanpostuak erreferentziazat joko dira 2008/2009ko ikasturtekoak finkatzeko.

Hori dela eta, 2007/2008koa aurreesleipena da eta, argi dagoenez, oso inportantea da figura horrek babesten dituen bitarteko irakasleentzat.

Ildo horretatik, lanpostuen ezaugarri definitzaileen inguruan duten informazio guztia emango dute lurralde-ordezkaritzetako zerbitzuek, baita sistemaren funtzionamenduari buruzkoa ere.

Vitoria-Gasteiz, bi mila eta zazpiko uztailaren hogeita lauan

Itziar Garaizar Agirre
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA